

APIRILAREN 2KO BATZORDE IRAUNKORRAREN ADIERAZPENA

Une zailetan jartzen dituzte pertsonak eta erakundeek beren benetako balioak, erantzukizuna eta egokitzeko gaitasuna, hezkuntza-komunitate osoa asteotan erakusten ari den moduan.

Horregatik, Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak ikusarazi eta eskertu nahi du ahalik eta modurik positiboenean erantzuteko egin duten ahalegina.

Ikasleak, beren garapen pertsonala, soziala eta akademikoa dira hezkuntzaren helburu nagusia, eta haien inplikazioa eta ahalegina funtsezkoak dira, beraz. Horregatik goraipatu behar da gai izan dela etxean egoteko, bere ikastetxearekin konektatuta jarraitzeko, egoera berrira egokitzen saiatzeko eta, ahal den neurrian, irakasleengandik jasotzen dituen egitekoak eta jarraibideak betetzeko.

Familien papera oso garrantzitsua bada beti, askoz ere gehiago oraingoa bezalako egoera konplexuan, eta horrek gizarte osoaren aitortza merezi du. Pertsona guztien arreta eta zaintza euren on-lineko lanbide jardunarekin edota egoera honek ekarri dien lan-ziurgabetasunarekin uztartzea berez zaila bada ere, seme-alabak zaintzeko eta laguntzeko gai izaten ari dira, isolamendua ahalik eta ondoen jasan dezaten eta eskolako eginkizunez ardua daitezen.

Irakasleek, egun batetik bestera, aurrez aurreko ohiko eskola ematetik on-line irakaskuntzara igaro behar izan dute, eta ahalegin, sormen eta lan handiz gainditu dituzte ikasle guztiengana iristen saiatzeko eragozpen guztiak, batez ere behartsuenengana, une oro inor atzean gera ez dadin ahaleginduz. Lan hori ikusarazi, balioetsi eta eskertu egin beharra dago.

Irakasleen koordinazioari eta zaintzari eusten diete ikastetxeetako **zuzendaritza-taldeek**, irakasleak animatuz eta haien lana errazten saiatuz, justizia sozialerako lidergo pedagogikoa haien gain hartuz eta ikasle zaurgarrienei arreta eskainiz.

Hezkuntza Administrazioaren zerbitzu ezberdinei, ikuskariei, aholkulariei eta Hezkuntza Saileko arduradunei, irakasleei aholkuak, tresnak eta laguntza, oro har, erantzun berriak ematen baitizkiete ikasle guztiengana irits daitezen, azken finean, hezkuntza-sistemaren xedea hauen ongizatea eta garapena baita.

Hezkuntza gizarte osoaren ardua da, eta orain, inoiz baino argiago, agerian geratu da; denon artean posible badela ari gara erakusten.

Zalantzarik gabe, krisialdi honen amaieran, beharrezkoa izango da hezkuntza-komunitate osoak behar duen ikaskuntza ereduari buruz lasaitasunez hausnartzea eta, horrela, egindako ahalegina ez da alferrik izango, eta hizki larrizko **HEZKUNTZA** garaile aterako da.

2020/04/02. Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra.